

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2862

AGINDUA, 2015eko ekainaren 24koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzen 2015eko deialdia egiten duena (Itsaspen programa), otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babesean.

Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzei (Itsaspen Programa) buruzko otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak helburu dauka Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak emateko araubidea ezartzea eta arautzea, eremuotako oinarrizko zerbitzuak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta kostaldeko herriak biziberritzen, berritzen eta garatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzeko.

Dekretuaren 7. artikuluan xedatu bezala, urtero egingo da laguntzetarako deialdia eta, halaber, zenbait alderdi finkatuko dira, hala nola: zein den eskabideak aurkezteko epea; gehienez zenbat diru bideratuko den laguntzak banatzeko (kapituluetan banatuta); zein diren diruz lagunduko diren laguntza-lerroak; irizpide objektiboen artean zein aplikatuko diren laguntzen zenbatekoa zehazteko; deialdi bakoitzean aukeratzen diren irizpide objektiboen arabera, nolako dokumentazioa aurkeztu behar den diruz laguntzen den ekintza mota bakoitzerako; zein den inbertsioak eta gastuak egiteko epea, bai eta Inbertsioak eta gastuak justifikatzekoa; eta soberakin ekonomikorik badago, nola banatuko diren kapitulua bakoitzean.

EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.5 artikulua ezartzen duenez, ekitaldi ekonomiko bakoitzean EAEko Aurrekontu Orokorra indarrean jartzen direnean, programen diru-laguntzak emateko arauak eguneratu, berrikusi, edo, hala badagokio, ezarriko dira, eta kasuan kasuko deialdia egingo da bere garaiak izaera mugagabez arautu zirenentzat.

Behin Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legea onetsirik, deialdi hori egin beharra dago.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

Agindu honen helburua da 2015 ekitaldiko deialdia egitea Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko 2015eko laguntzetarako (Itsaspen Programa). Laguntza horiek otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuan aurreikusitakoak dira.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak ezarritako laguntza deialdian sartzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da 2015eko ekitaldian, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneko 09:00etan hasi eta azken eguneko 15:00ak arte. Azken eguna ostirala izan ezker, 12:00etan bukatuko da aurkezteko epea.

2.– Onartu egiten da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak eskatzeko inprimakia (Itsaspen Programa), eskuragarri egongo dena Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) eta web-orri honetan: www.nasdap.ejgv.euskadi.net. Esan bezala, laguntza horiek otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren bidez arautzen dira.

Hirugarrena.– Gehieneko diru-zuzkidura.

1.– Agindu honen bidez 2015eko ekitaldirako deitutako laguntzei erantzuteko gehieneko diru-zuzkidura 2.300.000 eurokoa da, honela banatuta: 430.000 euro II. kapitulari dagozkio; 100.000 euro 2015erako ordainketa-kredituari, eta 330.000 euro 2016rako konpromiso-kredituari; 180.000 euro III. kapitulari dagozkio: 50.000 euro 2015eko ordainketa-kredituari eta 130.000 euro 2016rako konpromiso-kredituari; 450.000 euro IV. kapitulari dagozkio: 100.000 euro 2015erako ordainketa-kredituari eta 350.000 euro 2016rako konpromiso-kredituari; 500.000 euro V. kapitulari dagozkio: 125.000 euro 2015erako ordainketa-kredituari, eta 375.000 euro 2016rako konpromiso-kredituari; 500.000 euro VI. kapitulari dagozkio: 100.000 euro 2015erako ordainketa-kredituari eta 400.000 euro 2016rako konpromiso-kredituari; 90.000 euro VII. kapitulari dagozkio: 25.000 euro 2015erako ordainketa-kredituari eta 65.000 euro 2016rako konpromiso-kredituari; eta 150.000 euro VIII. kapitulari dagozkio, 150.000 euro 2015erako ordainketa-kredituari eta 0 euro 2016rako konpromiso-kredituari.

2.– Kapituluaren batean soberakinak baldin badaude, besteei egotzi eta euren artean banatuko dira, lehentasunezko hurrenkera honi jarraituz: VI., V., IV., II., III., VIII. eta VII. kapitulua.

Laugarrena.– Diruz laguntzeko moduko laguntza-lerroak

Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren babespean 2015ean diruz lagunduko diren jarduerak kapitulu hauetan aurreikusitakoak izango dira: II., III., IV., V., VI., VII. eta VIII. kapituluak.

Bosgarrena.– Proiektuak baloratzeko eta laguntzak kuantifikatzeko irizpide objektiboak.

Proiektuak baloratzeko, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitako irizpide objektibo guztiak hartuko dira kontuan.

Seigarrena.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Laguntzak eskatzen dituztenek, eskabidearekin batera, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Zazpigarrena.– Inbertsioak eta gastuak gauzatzeko epea.

1.– II., III., IV., V., VI. eta VII. kapituluetakoa ekintzei dagozkien inbertsioak eta gastuak urtekoak edo urte anitzekoak izango dira. Urteko proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2015eko abenduaren 31n amaituko da, eta urte anitzekoak gauzatzekoa, berriz, 2016ko abenduaren 31n, hargatik eragotzi gabe otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 13. eta 16.3 artikuluetan xedatutakoa betetzea.

Proiektu bakoitzaren inbertsio eta gastuak gauzatzeko epea zehazteko, aintzat hartuko da Lاندaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren Ebazpenean ezarritakoa, hala ezarrita baitago otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 11. artikuluan.

2.– VIII. kapituluaren xedatutako ekintzen gastuak urtekoak izango dira, eta horiek gauzatzeko gehieneko epea 2015eko abenduaren 31n amaituko da, hargatik eragotzi gabe otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 13. eta 16.3. artikuluetan xedatutakoa betetzea.

Zortzigarrena.– Inbertsioak justifikatzeko epea.

Urteko eta urte anitzeko proiektuetan, gehienez bi hilabeteko epean justifikatu beharko da inbertsioak eta aurreikusitako gastuak gauzatu direla, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsio- edo gastu-proiektua amaitzen denetik edo azken luzapenetik hasita, hala ezarrita baitago otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren 14.3 artikuluan.

Bederatzigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete interesdunek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta biharamunean hasiko dira epeak.

Hamargarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 24a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.